

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Behin betiko onartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa

Legutioko udalbatzak behin betiko onartu du jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketa, zeren eta espedientearen jendaurreko aldi arauzkoan ez baitzen haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu.

Aldatutako zerga ordenantzak honela dio, hitzez hitz:

“I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, bat etorrit Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan eta zerga honen foru arauan aurreikusitakoarekin, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera, zeinaren parte baita eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Zerga gaia da enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea udalerrian, jarduera horiek lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa jarduerak izango dira beste jarduera baten mendeko ez den abeltzaintza, meatzeak, industria, merkataritza eta zerbitzuak. Horien artean ez dira sartzen nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza; beraz, horiei ez zaie zerga ezarri behar.

Aurreko ahapaldian ezartzen denaren ondorioetarako, abeltzaintza lokabetzat joko dira kasu hauetakoren batean dauden abereak:

- a) Abeltzainak abereak larratzen diren lurrak ez erabiltzea nekazaritzarako ez basogintzarako.
- b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.
- c) Transhumantzia dabilena.
- d) Abereak hazten diren finkakoak ez diren pentsuez elikatzen direnean, batez ere.

4. artikulua

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar ditueneko ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.

2. Zergapetutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

5. artikulua

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko zuzenbidean onar daitekeen edozein bitarteko erabil daiteke, batik bat merkataritzako kodeko 3. artikuluan ezartzen direnak.

6. artikulua

Jarduera hauek ez dira zerga gai:

1. Nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza.
2. Enpresen aktibo finkoan sartzen diren ondasunak besterentzea, ondasun horiek aldatu baino bi urte lehenagotik, gutxienez, ibilgetu izaeraz agertu badira inbentarioan, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, ondasun horiek denboraldi berean erabili izan baditu.
3. Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.
4. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren artikulua erakustea. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gauzak erakustea zergapean dago.
5. Txikizkako salmentan, egintza bakarra gauzatzea eta eragiketa bakana izatea.

III. Salbuespenak

7. artikulua

1. Zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, bai eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Jarduera batean hasten diren subjektu pasiboak, hasi eta lehenengo bi zergaldietan.

Ondorio horietarako, honako hauek ez dira joko jarduera hasi den kasutzat:

– Jarduera lehen beste titulartasun batekin egin bada; halakotzat hartuko dira bategiteak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.

– Subjektu pasiboa merkataritza kodeko 42. artikuluekin bat etorritik eratutako sozietate talde bateko kidea bada; salbu eta jarduera berri bat bada, taldeko ezein enpresak lehenago egin ez duena.

– Eta erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

Salbuespen hori eskabidezkoa izango da, eta alderdi batek eskatuta emango da, hala badagokio:

c) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, salbuespena establezimendu iraunkorrean dihardutenek soilik aplikatu dezakete, baldin eta eragiketen bolumena 1.000.000 eurotik beherakoa bada.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, idatz zati honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 77. artikuluan zehazten dituenak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Idatz zati honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketen bolumena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 5. artikuluan 1. idatz zatian ezartzen duenaren arabera kalkulatu da.

2. Pertsona fisikoen errentaren gaineko edo sozietateen gaineko zergen subjektu pasiboentzat edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunentzat, eragiketen bolumena izango da zerga horiengatiko aitorpenak aurkezteko epealdia zerga sortu aurreko urtean amaitu den zergaldikoa.

Zergen foru arau orokorrak 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen dituen sozietate zibilen eta entitateen eragiketen bolumena izango da zerga honengatiko zorraren sortzapen urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urtea baino laburragoa bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomikoaren multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, merkataritza kodearen 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokkeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte segurantzak, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten entitateak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratuak.

e) Ikerketa organismo publikoak; irakaskuntza zentroak, maila guztietakoak, baldin Estatua- ren, autonomia erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren edo toki erakundearen funtsen kargura ordaintzen badira osoki, edo ongintzako edo erabilera publikoko fundazioen kargura; era be- rean, irabazteko xederik gabe hezkuntza itunaren arabide pean dauden irakaskuntza zentroak, maila guztietakoak, nahiz eta ikasleei liburuak eta idazmahaiko gaiak eman, edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eskaini, edo, salbuespenez, zentroan bertan saldu irakaskuntza ho- rretarako tailerretako produktuak, betiere salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarria izan gabe) lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua sostengatzeko ez bestetarako baliatzen bada. Salbuespen hori eskabidezkoa izango da, eta alderdi batek eskatuta emango da, hala badagokio:

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioak, irabazteko asmorik gabeak, ezinduekin egiten dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerengatik, xede izanik haien irakaskuntza, heziketa, birgaitzea eta zaintza, nahiz eta zentroan bertan saldu hel- buru horietarako egiten diren tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa, partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea, bideratzen bada soil-soilik lehengaiak eskuratzera edo zentroa sostengatzera. Salbuespen hori eskabidezkoa izango da, eta alderdi batek eskatuta emango da, hala badagokio:

g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

h) Nazioarteko ituna edo hitzarmena dela bide salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pa- siboak.

i) Irabazteko asmorik gabeko erakundeak, uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauaren 9. artiku- luak aipatzen dituen ekonomia ustiategiengatik. Hala ere, erakunde horiek zerga horren matri- kularen altaren aitorpena aurkeztu beharko dute, eta, jarduera egiteari uzten badiote, bajaren aitorpena ere bai.

Salbuespen hau aplikatzeko bi gauza gertatu behar dira: batetik, irabazteko xederik gabeko erakundeak udalari jakinarazi behar dio uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauak 16. artikuluko 1. idatz zatian ezarritako aukerari heldu diola; bestetik, foru arau horretako II. tituluan zerga arabide bereziaren inguruan ezarritako baldintzak bete behar dira.

2. Aurreko idatz zatiko a), d), g) eta h) letretan aipatutako subjektu pasiboek ez dute alta aitorpena aurkeztu beharrik zergaren matrikulan.

3. Artikulu honen 1. idatz zatiko c) letran zehaztutako salbuespena aplikatzeari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak zehaztuko du, hura aplikatzearen ondorioetarako, zein kasutan aurkeztu beharko den berari zuzendutako komunikazioa, zeinetan salbuespena aplikatzeko letra horretan ezarritako betekizunak betetzen direla jasotzen baita.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiak finkatuko du zein izango den komunikazioaren edukia, noiz eta nola aurkeztu behar den, bai eta zein kasutan aurkeztu behar den baliabide telematikoen bitartez ere.

Aurreko 1. idatz zatiko c) letran zehazten den salbuespenean eragina eduki dezaketen aldakuntzak direla eta, zerga ordenantza honetako 12. artikuluko 2. idatz zatiko hirugarren paragrafoan ezartzen dena aplikatuko da.

4. Artikulu honen 1. idatz zatiko e) eta f) letretan aurreikusitako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

IV. Subjektu pasiboa

8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisiko edo juridikoak, eta bai Arabako zergei buruzko foru arau orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerga gaia sortzen duten jardueretako edozein egiten badute udalerrian.

V. Kuota

9. artikulua

Zerga kuota izango da ateratzen dena aplikatuz indarrean dauden zergaren tarifak, uztailaren 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak, eta udalak erabakitako koefizienteak, indizea eta hobariak, ordenantza honen eranskinean arautuak.

10. artikulua

1. Udalak, zerga honen tarifetan ezarrita dauzkan eta aurreko artikuluko koefizientea aplikatuta aldatu diren gutxieneko kuotei 1,1 puntuko igoera koefiziente orokor bat aplikatuko die.

2. Aurreko arauaren ondorioetarako, udalerriko bide publiko guztiak zerga kategoria berekoak dira.

VI. Zergaldia eta sortzapena

11. artikulua

1. Zergaldia urte naturala da; salbuespena: alta aitortzen zergaldia jarduerari ekin zaionetik egutegiko urtea amaitu arte da, artikuluko honetako 3. zenbakian xedatzen dena gorabehera.

2. Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta aitortzen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra arteko egunen kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3. Baja aitortzen zergaldia urtarilaren lehenengotik baja aitortzen den egunera arte izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga eta kuota urtarilaren batetik baja aitortzen den egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren hilen kopurua kalkulatzeko, hil osotzat zenbatuko da baja aitortzen den hila.

Kasu honetan ez da aplikatuko zenbaki honetan xedatzen dena: jarduera hasi den egunetik baja aitortzen egin arte 12 hilabete pasatu ez badira. Hala denean, baja eguna baja aitortzen den urteko abenduaren 31 izango da.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarri den bezala aurkeztu beharko dira.

VII. Kudeaketa

12. artikulua

1. Zerga matrikula oinarritzat hartuta kudeatzen da. Matrikula hori urtero eratuko da, eta bertan sartuko dira jarduera ekonomikoen, subjektu pasiboen, zerga zorren, eta, hala badagokio, foru errekariguen zerrendak. Matrikula jendearen eskura egongo da.

2. Subjektu pasiboek beren alta aitortpen guztiak aurkeztu behar dituzte eta, ordenantza honetako 12.1 artikuluan ezartzen denarekin bat etorriz, matrikulan sartzeko behar diren datu guztiak adierazi beharko dituzte arau ezartzen den epealdiaren barruan. Ondoren administrazio eskudunak bidezko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta gero hark bidezko diru kopurua sartu beharko du.

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epealdietan eta zehazten den bezala. Hori dela eta, jakinarazpenetan nahitaez adierazi beharko da jarduera egiten den higiezinaren katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honetako 7. artikularen 1. idatz zatiko c) letran ezartzen den salbuespena aplikatu ezin zaien subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren berri eman beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, eragiketen bolumenaren aldakuntzaren ondorioz zerga ordenantza honetako 1. artikuluko 7. idatz zatiko c) letran ezarritako salbuespenaren aplikazioa aldatzen bada, subjektu pasiboak bolumen aldaketaren berri eman beharko du.

Arabako Foru Aldundiak ezarriko du noiz aurkeztu behar diren jakinarazpen horiek, horien edukia eta, noiz eta nola aurkeztu behar diren, bai eta zer kasutan aurkeztu behar den baliabide telematikoen bitartez ere.

3. Zerga ikuskaritzaren edo alden eta berriemateen formalizazioak direla-eta erroldetan datuak sartu edo haietako datuak kendu edo aldatzen direnean, administrazio ekintzatzat joko dira eta errolda aldatzea ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa batek errolda bateko daturen bat ukitzen badu, lehenbizi ildo bereko aldaketa egin beharko da datu horretan, nahitaez.

4. Zerga hau autolikidazio bidez eskatu ahal izango da; hala bada, arau bidez ezarriko da nola.

13. artikulua

1. Udalari dagozkio zerga hau kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldian, bai premiamendu bidean.

2. Udalaren aginpidea izango da, halaber, errolda jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3. Salbuespenak emateko edo ukatzeko Foru Aldundiaren txosten teknikoak beharko da beti; ebazpena eman ondoren, haren berri jakinarazi beharko zaio Foru Aldundiari.

14. artikulua

Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurtsioei eta erreklamazioei zergen foru arau orokorreko 229 - 246 bitarteko artikuluetan xedatzen dena aplikatuko zaie. Berraztertze errekurtsioak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Errekurtsioa edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

15. artikulua

1. Udal bakoitzaren matrikula Arabako Foru Aldundiak prestatuko du, eta ondoren haiei bidaliko.

2. Foru Aldundiak egindako matrikula jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, eragindako zergadunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

3. Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, hark onar dezan.

4. Hura onartu eta gero, Arabako Foru Aldundiak bidezko ordainagiriak prestatuko ditu, eta gero udaletako bakoitzari bidaliko dio, zerga bilketari ekin diezaion.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau, bai eta bere eranskina ere, 2017ko urriaren 31n onartu ziren behin betiko, 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta indarrean iraungo dute harik eta espresuki aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eranskina

Lehenengo araua. Zerga kuota izango da ateratzen dena aplikatuz indarrean dauden zergaren tarifak, uztailearen 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak, eta udalak erabakitako koefizienteak, indizea eta hobariak, ordenantza honetan arautuak.

Bigarren araua. Haztapen koefizientea eragiketa bolumenaren arabera zehaztutako da.

Haztapen koefiziente bat aplikatuz handituko dira zergaren tarifetan zehaztutako zerga kuota, kasuan kasuko foru arauaren bidez onartuak. Koefiziente hori eragiketa bolumenaren arabera zehaztuko da, honako taulan adierazitakoaren arabera:

ERAGIKETA BOLUMENA (EUROTAN)	KOEFIZIENTEA
2.000.000,00 - 6.000.000,00 euro bitartean	ehuneko 1,20
6.000.000,01 - 10.000.000,00 euro bitartean	ehuneko 1,22
10.000.000,01 - 50.000.000,00 euro bitartean	ehuneko 1,24
50.000.001,00 - 100.000.000,00 euro bitartean	ehuneko 1,27
100.000.000,00 baino gehiago	ehuneko 1,30
Eragiketa bolumenik gabe	ehuneko 1,25

Ildatz zati honetan jasotako koefizientea aplikatzearen ondorioetarako, subjektu pasiboaren eragiketa bolumena berak burutzen dituen ekonomia jardueren multzoari dagokiona izango da, ordenantza honek 7.1.c) artikuluan jasotakoarekin bat etorri zehaztuko da.

Hirugarren araua. Igoera koefizientea

Bat etorri uztailearen 19ko 43/1989 Foru Arauak 9.1 artikuluan xedatutakoarekin, udalerrri honetan egindako jarduera guztiengatik jarduera ekonomikoen gaineko zergako tarifako gutxienerako kuota 1,1 koefizientea aplikatuz igoko dira.

Laugarren araua. Indizeak

Uztailearen 19ko 43/1989 Foru Arauak, jarduera ekonomikoen gaineko zergarenak, 10. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Legutioko Udalak ez du ezartzen subjektu pasiboak jarduera ekonomikoa burutzen duen bide publikoaren zerga kategoriaren araberrako indizerik. .

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Legutio, 2017ko abenduaren 20a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA